Bergarako Udala

**JAKINARAZTEN DIZUT** 2019ko ekainaren 27an Alkate jaunak, hurrengo dekretu hau eman duela:

“Bergarako Udalak udal eraikinetako garbitzaileen lan-poltsa osatzeko oinarriak onartu zituen.
Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta eta aurkeztutako erreklamazioari dagokion dokumentazioa aztertuta, ondorengoa **ERABAKI DUT**

**LEHENENGOA**.- Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea:

ONARTUTAKO IZANGAIAK:

| NAN |
|---|
| 15358038H |

BAZTERTUTAKO IZANGAIAK:

Baztertutako izangaiak ondorengoak dira, bakoitzaren jarraian zehazten diren arrazoiengatik:

| NAN | BAZTERTZEKO ARRAZOIAK |
|---|---|
| Y3322700L | 1 |
| 15388401K | 2 |
| 30654182N | 3 |
| 72445910G | 3 |
| X2444589B | 4 |
| 16269824S | 4 |
| 44342923C | 4 |
| 15386168L | 5 |
| 44342894K | 5 |
| 76054895J | 5 |
| 15370229L | 5 |
| 44341560K | 5 |
| 16301390W | 5 |

1.- Ez du aurkeztu eskatutako ikasketen agiria. Gainera, kontratuen kopiak aurkeztu beharko lituzke egiaztatuta geratzeko eskatutako gutxieneko bi urteko esperientzia duela.

2.- Duela adierazten duen lan esperientzia ez delako inoren kontura garbiketa lanak egiten, baizik eta beste eginkizun batean.

3.- Jadanik beste lan-poltsa batean sartuta dagoelako, eta deialdi honekin sortuko litzatekeen lan-poltsa osagarria delako.

4.- Ez duelako aurkeztu eskatutako ikasketen agiria eta eskatutako gutxienezko bi urteko esperientzia ez duelako.

5.- Eskatutako gutxienezko bi urteko esperientzia ez duelako.

Bergarako Udala

**BIGARRENA**.- Deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituen izangai bakarra dagoenez, pertsona hori izango da deialdi honen xede den udal eraikinetako garbitzaileen lan-poltsan sartuko den pertsona bakarra.

Pertsona hori honakoa da:

- 15358038H

**HIRUGARRENA**: Erabakiaren berri ematea udaletxeko iragarki taulan, udalaren web orrian eta pertsonal sailari."

Erabakiaren aurkako bideak:

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtso ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2019ko ekainaren 27a
IDAZKARIA

BERGARAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BERGARA SECRETARIA IDAZKARITZA